

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/08

Ibone Bengoetxea Herri Administrazino diputatuak Zugastelen, Bizkaytiken eta Lantiken 2018ko proiektuak zehaztu ditu

Ibone Bengoetxea Herri Administrazino eta Erakundeen arteko Hartu-emonetarako diputatuak Bizkaytik, Zugastel eta Lantik foru soziedadeen 2018rako aurreikusitako jarduketak eta proiektuak eta aurrekontuko gastua zehaztu ditu gaur goizean Batzar Nagusietako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordearen aurrean. Agerraldiak, EH Bilduk eta Talde Mistoak egindako hiru agerraldi eskariri erantzuten deutse. Hasiera batean erakundeetako zuzendaritzei zuzenduta egon badira be, Foru Arduradunak hartu ditu bere gain, bera dalako hiruen Presidentea.

Foru diputatua Bizkaytik erakundetik hasi da. Sortu zanetik 10 urte beteten dituan honetan, erakundearen helburu nagusiak herritarrak Administrazinora gerturatzea eta udal sistema informatikoak barriztatea da. Holan, diputatuak esan dauenez, erakundearen asmoetako bat Bizkaia “erreferentea” bilakatzea da, administrazino elektronikoari jagokonez, eta espezializautako Bake Eder Ezagutza Zentroak oso leku garrantzitsua beteten dau egiteko horretan. 4,9 milioi euroko aurrekontua eta 15.000 euroko inbertsinoa daukien eta Bengoetxea diputatuaren berbetan 2018an gauzatuko diran moduluen artean dobako posta elektronikoa, udal kudeaketako sistema informatikoa (erregistroa, errolda...), webguneen mantentze lanak edo Datuen Babeserako Lege Organikoaren azterketea eta ezarpen zuzenaren jarraipena dagoz, beste batzuen artean. Horretarako sei personak osatutako lan taldea dauka.

Ibone Bengoetxeak foru soziedadeak egindako beharraren balorazino positiboa egin dau, eta adierazpen hori, zerbitzua erabilten daben 112 udalerriek emon deutsien eta ia bikainera ailegetan dan notan oinarrituta egin dau.

Bigarren esku-hartzean, Aldundiko arduradunak 2018rako jarduerak integretan dituen lau blokeak zehaztu ditu: dokumentuen goi mailako grabazino eta digitalizazino, une honetan beherantz doan jarduerak; presentziazkoa ez dan kanal anitzeko arreta zerbitzua; herritarren arretarako kanal anitzeko azpiegituren diseinua eta garapena; eta marketin digitala. Horretarako guztietarako, “erakundeak Kudeaketa Sistema Integraua” definidu dau, eta horreen egitekoen artean “informazinoaren kalidadea eta segurtasuna” ziurtatzea dago. Zugastelek 5 milioi euroko aurrekontua dauka, 300.000 euroko inbertsinoa eta 45 lanpostu.

Azkenengo agerraldia Lantik erakundeari buruzkoa izan da. Aldundiko ordezkariak, 70 milioi euroko aurrekontua daukan erakundeak Bizkaiko Foru Aldundiaren sailetan aurrera eroango dituan proiektu teknologiko ugariak aitatu ditu. Horretarako 232 lanpostuz osatutako lantaldea dauka, 2009an sinatutako hitzarmenak araututakoa; gaur egun, Herri Administrazino eta Erakundeen arteko Hartu-emonetarako diputatuak adierazo dauen moduan, “hitzarmena eguneratzeko eta adostutako terminoak sartzeko” ari dira beharrean.

Euren erantzun txandan, Talde Mistoak, Podemos Bizkaiak, eta EH Bilduk hiru erakundeak bateratzeko aukerea jarri dabe mahai gainean, kostuak aurrezteko xedez; horri jagokonez, diputatuak adierazo dauenez, “hiru soziedadeek zer edo zer komunean izan daikien arren, bakotxaren uneak eta erritmoak desbardinak dira une honetan”. Talde Popularreko ordezkariak, bere aldetik, hiru soziedade horreen erabilgarritasuna kritikau dau, eta, ganera, Bizkaytik eta Zugastel erakundeen kontratazino erespideak arbitrarioak dirala esan dau. Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek, barriz, hiru kasuetan gizarte arloko klausulak sartzearen aldeko interesa erakutsi dabe, eta diputatuak esan dau, Zugastelen kasuan, kontratu guztiek gizarte arloko klausulak dituela. Hiru kasuetan, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, gaur emondako informazino guztia gardentasunaren webgunean dagola gogorarazo dabe, eta diputatua Batzarretara etortea balioan jarri dabe, “errespetua erakusten dauela” azpimarratuz.

NOTA DE PRENSA

08/05/18

La diputada de Administración Pública Ibone Bengoetxea detalla los proyectos de Zugastel, Bizkaytik y Lantik para 2018

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha detallado esta mañana ante la Comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia las actuaciones y los proyectos previstos para este 2018, además del gasto presupuestario de las sociedades forales Bizkaytik, Zugastel y Lantik. Este hecho responde a tres solicitudes de comparecencia de EH Bildu y Grupo Mixto, que a pesar de estar inicialmente dirigidas a la dirección de las entidades ha acabado por asumirlas la responsable foral en calidad de Presidenta.

La diputada foral ha comenzado con Bizkaytik. Esta entidad, que este año cumple 10 años desde su fundación, tiene como objetivos principales el acercamiento de la ciudadanía a la Administración y la renovación de los sistemas informáticos municipales. En este sentido la diputada, como uno de los propósitos de la entidad, ha manifestado que la entidad foral quiere convertir a Bizkaia “en un referente” en lo que la administración electrónica se refiere, para lo cual el Centro de Conocimiento especializado Bake Eder juega un papel importante. Con un presupuesto de 4,9 millones de euros y una inversión de 15.000 euros los módulos que la diputada Bengoetxea ha detallado que se llevarán a cabo en 2018 van desde el correo electrónico gratuito, el sistema informático de gestión municipal (registro, padrón...), el mantenimiento de los portales web, y el análisis y seguimiento de la correcta implantación de la Ley Orgánica de Protección de Datos, entre otros. Para ello cuenta con una plantilla de seis personas.

Ibone Bengoetxea ha realizado una valoración positiva del trabajo realizado por la sociedad foral y ha basado esta afirmación en la puntuación casi sobresaliente realizada por los 112 municipios que están adheridos a este servicio.

En su segunda intervención, la responsable foral ha determinado los cuatro bloques en los que están integradas las actividades previstas para 2018: la alta grabación y digitalización de documentos, la cual se encuentra en decrecimiento; el servicio de atención no presencial multicanal; el diseño y desarrollo de infraestructuras multicanal para la atención a la ciudadanía; y el marketing digital. Para todas ellas, “la entidad ha definido un Sistema Integrado de Gestión” que tiene entre sus funciones asegurar “la calidad de la información y su seguridad”. Zugastel cuenta con un presupuesto de 5 millones, una inversión de 300.000 euros y 45 plazas de trabajo.

La última comparecencia ha versado sobre Lantik. Con un presupuesto de 70 millones la representante foral ha detallado los numerosos proyectos tecnológicos que desarrollará respecto a los diferentes departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia. Para ello cuenta con una plantilla integrada por 232 plazas con el que mantiene un convenio colectivo suscrito en 2009; actualmente, como ha manifestado la diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, se encuentran trabajando “para actualizar el convenio e incluir los términos acordados”.

En los tres turnos de réplica tanto Grupo Mixto como Podemos Bizkaia, y EH Bildu han expresado la posibilidad de unificar las tres entidades con el fin de ahorrar costes; a este respecto la diputada ha declarado que “a pesar de que las tres sociedades puedan tener algo en común los momentos y los ritmos de cada una de ellas ahora son distintos”. Por su parte, el representante de Grupo Popular ha criticado la utilidad de estas tres sociedades además de calificar como arbitrarios los criterios de contratación de Bizkaytik y Zugastel. Podemos Bizkaia y EH Bildu, sin embargo, han mostrado interés por la integración de las cláusulas sociales en los tres casos, a lo cual la diputada ha asegurado, en el caso de Zugastel, que todos los contratos cuentan con cláusulas sociales. En los tres casos tanto el grupo Nacionalistas Vascos como el de Socialistas Vascos han recordado que toda la información dada hoy se encuentra en la página web de transparencia y han puesto en valor la presencia de la diputada en la cámara calificándola como “una muestra de respeto”.